



Mikel Elgezabal ... Txirrindularia

«Ezin naiz ekitaldi guztietara joan, asko zaindu behar dugu eta»

Denboraldi bikaina egiten ari da Mikel Elgezabal, 2002ko Biraren irabazlea. Txirrindularitzan etorkizun oparoa izango du Gernikako seme honek. Dioenez, sekula ez zuen pentsatuko Jai Batzordeak pregoia irakurtzeko aukeratuko zuenik. Baina, «oso pozik» ekingo dio eginbeharrari, «ohore handia baita»

Jaietan nahi lukeen baino gutxiago parte hartuko du Mikel Elgezabalek, hainbat lasterketa baititu egunotan. «Mundu honetan nabarmen-tzeko lan asko egin behar da», jakinarazi du.

■ **Erantzukizun handia da pregoia irakurtzea, ezta?**

Bai. Baina, batez ere, pozgarria da nitaz gogoratu baitira. Nik sekula ez nuen pentsatuko herriko jaietako pregoia irakurriko nuenik. Ohore handi bat da.

■ **Zer aipatuko duzu pregoian?**

Jendeari ahal denik eta ondoen ibiltzeko gonbitea egingo diot.

■ **Zeintzuk dituzu jaietako ekitaldi gogokoena?**

Kontzertuetara joatea asko gustatzen zait, eta baita lagunekin txosnetan eta tabernetan ibiltzea ere.

■ **Uda parte honetan lasterketa asko izanda, jaietako ekitaldietan parte hartu ahal izango duzu?**

Ahal den ekitaldi guztietara joango naiz, baina egun haue-tan hainbat lasterketa dituda-nez, ezingo ditut jaiak nahi beste gozatu. Kirolaria izanik, eta, gainera, txirrindularia izan-da, zeina kirolik zailenetarikoa den, asko zaindu behar dut. Ezin dut nahi dudan guztia jan edo edan, eta zutik denbora asko egoten banaiz, hankak gogortu egiten zaizkit, eta asko nekatzen naiz.

■ **Zein lasterketatan parte hartuko duzu?**

Mañariakoan, Aretxabaletako-an, Baldatikako igoeran (Forua), Gernikan ere bai... Denboraldiaren parte honetan hainbat lasterketa pilotzen zaizkigu.

■ **Zelan balioetsiko zenuke aurten egin duzun denboraldia? Bikaina gutxienez, ezta?**

Oso pozik nago egindakoare-kin. Egia esan, maiatzetik hona, oso denboraldi ona egin dut. Bira irabazteaz gainera, Irunen, Kantabrian eta abar irabazi egin dut. Eta beste lasterketa batzuetan ere postu onak egin ditut; 6 aldiz izan naiz bigarren, pila bat aldiz hirugarren...

■ **Hain emaitza onen atzean lan handia egoten da.**

Asko entrenatu behar da, hori egia da. Baina nire kasuan, esango nuke, serioago hartu dudala txirrindularitza. Asko zaindu naiz, 3 kilo argaldu, eta, batez ere, pentsaera aldatu dut.

JAIK

«Kontzertuak ditut gustuko, txosnetan eta tabernetan lagunekin ibiltzea ere bai»

KIROLA

«Kirolaria izanik, eta, gainera, txirrindularia, asko zaindu behar dut egun hauetan»

DENBORALDIA

«Bira irabazteaz gainera, Irunen, Kantabrian eta abar irabazi egin dut; oso pozik nago»

■ **Duzun palmaresa izanda, datorren urtean profesionalekin arituko zara, ezta?**

Gauzak oso gaitz daude. Amateurretatik profesionaletarako saltoa egitea gero eta zailagoa da. Oraindik, nik, behintzat, ez dut inongo talde profesionalen deirik jaso.

■ **Baina Bira irabazi duzu; eta hori egutegiko lasterketa garrantzitsuenetarikoa da.**

Esan dizut, gaur egun, ekipo bari-rik nago datorren urterako. Ni prest nago Portugal edo Italiako taldeetara joateko ere, baina gauzak gelditu daude.

■ **Berriro amateurretan arituko zinateke?**

Zaila da, aurten jada, irabaz dai-tekeen lasterketa garrantzitsue-na irabazi dut, eta baita beste lasterketa batzuk ere. Datorren urterako maila oso altu izango nuke. Eta zertarako egin hain-beste lan, gero inork deitzen ez badizu?

Exclusivas GERNIKA, S.A.

BANATZAILEAK:

- EL COTO DE RIOJA - CAVAS HILL (PENEDES)
- BAINES PATXARANA (IRUÑEA)
- SAMALENS, BAS ARMAGNAC
- PALACIO KONTSERBAK (MENDABIA)
- GUTARRA, BARAZKI NATURALAK
- LEGUMBRES GOMEN (LEON)
- CATTOS WHISKY ESKOZIARRA
- ZAPIAIN SAGARDO NATURALA (ASTIGARRAGA)
- ACEITES DE OLIVA VIRGEN LA CHINATA, SABA
- ORUJOS GALLEGOS ADEGAS MOURE
- TXAKOLI ITSASMENDI BEREZIA
- TXAKOLI ARANE

Goiko Ibarra, 29 (Lehen "Vega Arriba" Ind.) • 153 P.K. - 48300 GERNIKA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 33 00 - Faxa: 94 625 55 12

ZIMELA Jatetxea

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Karta
- ✓ Ezkontzak eta bestelako ospakizun janak

250 mahaikiderentzat

Karlos Gangoiti, 57 • Tel.: 94 625 10 12 • GERNIKA

CHABUTERIA - URDAITEGIA

PEPI

Plaza del Mercado, P-36
Tel.: 94 625 84 49
GERNIKA